

NEGU HOTZA

Ibai Karega, 12 urte

Itsasu

Haize hotza xixtuka
ari zelarik,
bidean oztopo
zituen gauza guziak
hoztuta uzten zituen:
pentze eta zuhaitzak,
landare eta baratzeak...

Zuhaitzek beren besoak
laguntza eskatzeko gisan
mugitzen zituzten.
Hodei beltzek
beren malko hoztuekin
pentzeak eta baratzeak
xuritzen zituzten,
negu honetan ere.

Zuhaitzak biluzik!
Egun hotzetan
nola tristatzen den
etxearen begitartea!
Haize hotzak
bizidunak
izitzen ditu,
Izozten baititu.

Negua ez tiki erantzi du
zuen jauntzi xuria:
orain izena du... Udaberria!